


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Gure negozio ideia Bilboko bezero gazte eta helduentzat zuzenduta dago printzlpaki, izan ere, gure gim-instalazioak erabiltzeko 16 urte gutxienez izan behar dute, hauek izango dira gure bezero segmentu nagusia. Hala ere, beste bezero talde bat identifikatu dugu. Igerilekua eta sauna erabiltzeko, 16 urte baino gutxiago duten umeei aukera dute, betiere guraso edo 18 urtetik gorako baten laguntzarekin.



Gure bezeroen ezaugarriak, pisua jaitsi nahi duten pertsonak dira, baita haien osasuna hobetu edo berreskuratu nahi dutenentzat ere zuzenduta dago gure negozioa.



Enpresa hau Bilbon kokatuta egongo denez, Bilboko biztanleak, eta hurbil bizi direnak edo bertan lan egiten dutenak joango dira. 16 urtetik gorako emakumeentzako eta gizonentzako zuzenduta dago eta pisua jaisteko edo osasuntsu mantendu nahi duten pertsonentzako sortuta dago. Gimnasio honen helburua osasun arazoak edo osasuntsu mantendu nahi duten pertsonen haien helburuengan ailegatzeko. Helburuak lortzeko erabiltzen ahal duen zerbitzuak dira, makinak, pisu librea eta igerilekuak erabil dezake.

16 urte baino gutxiagoko bezeroen helburua, igerilekuan ondo pasatzea eta igeri egiten ikastea da beti adin nagusi batez lagunduta. Ildo beretik, igerilekuan ikastaroak egongo dira haienezako asteleheneretik ostiralero eta asteburan ostirala barne, ikastaro batzuk egongo dira helduentzako. Mugikortasuna gal ez dezaten, adinarekin arazo handia delako. Gainera, aktibo mantenduko ditu eta osasuna hobetuko die, eta momentu politak pasatuko dute beste talde batzuekin ariketa fisikoa egiten duten bitartean.

